



Euskara hizkuntza gutxitua da, eta lakota askoz gutxituagoa

AITOR ESTEBAN

Lakota hizkuntzaz hitzaldia egitekoa zen Aitor Esteban (Bilbo, 1962) iragan martxoan Gasteizen, Hitz Adina Mintzo ikastaroaren barnean. COVID 19-ak eragindako konfinamenduak bertan behera utzarazi zituen martxoaz geroko saioak eta, hainbestean, postaz jakinarazi dizkigu lakota hizkuntzari buruzkoak EAJko diputatuak.

 MIEL A. ELUSTONDO

Estebanek guztiz erabakia zuen Gasteizko ikastaroan partaidea izango zirenei irakatsiko zien lehena, *siux* hitzaren jatorritik, alegia: “Zuriek bakarrik erabiltzen zuten *siux*. Lakoten etsai den ojibway tribuak *nadowesiu* –hau da, ‘suge txiki’–, izenez izendatzen zituen lakotak. Zuriek, berriaz, berbaren amaiera baino ez zuten gogoan hartu eta, hortik, *siux*”. Arrotzek eman izena gailendu, jatorrizkoa azpian gordea. Bestalde, Estebanek *siux* nola ahoskatu behar den ere azaldu nahi zuen, lakotek berek *su* ahoskatzen baitute, eta ez *siux*, hemen ohitura dugunez. “Dena dela, eurek nahiago dute Lakota edo Dakota izenak erabili. Adiskide, aliatuak, dute esanahia. Hizkuntza eta herri bakarra diren arren, mendebaldekoak Lakota dute izena; ekialdekoak, aldiz, Dakota”. Horixe Aitor Estebanek lehen oharkizuna... “Zuriek lakotei *siux* izena eman zieten, eta lakotek zuriei, berriaz, *wašiču*, baina *wasicu* ez da edozein zuri, bakarrik estatubatuarra”.

Bateko Lakota eta besteko Dakota, historia zenbait zertzelada ematekoa zen EAJko Madrilgo diputatua. Halaber, kokapen geografikoaz, oraingo eguneko egoeraz, hiztunez eta bestez berba egin gura zuen. Indigena ezagunenak dira siuxak gaur egun, filmei esker. Minnesotan bizi ziren gizon zuriak AEBe-

tako ekialdeko itsasaldera heldu ziren sasioan. Indigena hauek ehiztariak ziren, izatez, eta kanoak erabiltzen zituzten batera eta bestera ehizan joateko. Hala ere, XVIII. gizaldian euretariko batzuek mendebaldeko migrazioari ekin zioten, Ojibway tribuaren, edo Chippewa izenez ere ezagunak, erasoan eraginez. “Lakota-dakoten arerio sutsuak ziren ojibway-ak, eta, zuriengandik armak lortu eta migratzera bultzatu zituzten lakotak. Gero eta urrunago heldu ziren, zaldiz, eta, astiro-astiro, filmetan ikusi dugun kultura berri bati lotu zitzaizkion, beste hainbat herriarekin batera”. Estebanek badu lakoten lekukotasun zuzen eta lehen eskukorik. “Euretariko agure zahar batek esan zidan, lakoten muina aldaketa da. Gaur egun, hainbat erreserbatan bizi dira AEBetan, eta, adibidez, Minnesotan, Hego eta Ipar Dakotan, eta Montanan dira. Baina Kanadan ere bai. Beste zenbait indiar herriarekin alderatuz, kide asko dira eta harro daude euren nortasunaz”. Aurki horrek, ordea, badu bere girbina, haien erreserbak AEBetako txiroenetakoak baitira.

2.000 HIZTUN

Hitz Adina Mintzo ikastaroaren lehen helburua hizkuntza da, “batez ere horretarako gonbidatu nindutela uste dut, eta hitzaldi gehiena hizkuntzaren inguru-

koetan lotu gura nuen. Bistan da, ordea, hizkuntza kulturarekin guztiz lotuta da goela, eta pentsatzeko erarekin”.

Aski ilun dihardu Estebanek hizkuntzaz: “Zoritarrez, euren hizkuntza guztiz baztertuta egon da hainbat urtetan, eta, oraintxe, zail da zenbat ‘siux’ eta zenbat hiztun diren jakitea. Uste da 200.000 inguru direla, eta haietarik 2.000k baino ez dutela euren hizkuntza menderatzen, hau da, %1 baino ez!”. Oraingo egunean, haur eskolak sortu dituzte beren oinordeak lakota hizkuntzan murgiltzeko. “Ez dute beste hizkuntzarik erabiltzen. Bestalde, udalekuak ere antolatzen dituzte. Zorionez, finkatua dute lakhotiya-ren ortografia, eta hori lagungarria zaie, oso. Ikasgura piztu du horrek”, esan du Estebanek, itxaropen izpiz bernizatuz solasa.

SIOUAN HIZKUNTZAK

Lakota hizkuntza siouan izeneko familiaren barrukoa da. Crow, omaha edo mandan hizkuntzak ere familia berekoak ei dira, ez dute, esaterako, komantxe, apatxe edo cheyenne hizkuntzekin loturarik, eta bata bestetik ezberdinak dira zeharo, siouan hizkuntzetako hiztunek elkar ez ulertzerainokoak.

Lakotak, berez, hiru hizkelgi ditu, eta hitzen %73 berberak dira hiruretan. “Hiru dialektuen arteko ezberdintasuna oso mehea da. Askotan, letra baten go-



NORTASUNA, HIZKUNTZAK, LURRA... Lakota eta Dakota herriei, hizkuntzak gutxiestez gain, lurrak ebatsi dizkiete. Argazkian Dakota herriko kideak ageri dira haien lurretatik igaroko zen petrolio-hodiaren eraikuntzaren aurkako ekintzan. Argazkia: Portland Rising Tide.

rabehera da. Joskeraz den bezainbatean, SOV [subjektua, objektua, aditza] hizkuntza da eta horretan gure euskararen modukoa. Aditzari dagokionez, ez ditu lehenaldia ez orainaldia bereizten, eta horri segituz, baten batek pentsatuko du hizkuntza erraza dela, baina ez. Aditzak asko engainatzen du: jokatzean, mota ezberdinak ditu, eta oso aglutinantea da". Puntu honetan, lakota eta euskara alderatu nahi izan dizkigu Estebanek: "Gauza batzuk adierazteko euskara baino zehatzagoa da lakota. Esate baterako, ekintzak nola eta zerekin burutzen diren, askoz zehatzago azaltzen du. Berba batekin, gauza bat aizkoraz, zerraz edo eskua erabiliz apurtu dugun bereizteko gauza da, eta berba bakar berebanean apurtutakoa zeurea zen, beste batena edo beste batentzakoa, adierazteko indarra dauka. Alabaina, numeroa edo subjektua bereizteari dagokienean, zorrotzagoa da euskara".

Honetaraz gero, bi hizkuntza gutxituon egoerak alderatzeko eskatu diogu, axaetik badarik ere. "Euskara hizkuntza gutxitua da, badakigu, baina lakota, berriz, askoz gutxituagoa da. Arestian esan dut, azken hamarkadan aurrerapauso handia eman dute, ortografia batua finkatu dutelako, batez ere, eta ondorioz, gero eta baliabide gehiago dituzte. Esango nuke, hala euskara nola lakota, egoera ahulean daudela hizkuntza biak, baina, ahuldade horretan ere, euskara hizkuntza erraldoia da, indartsua, lakhotiya'-rekin alderatuz gero". Hala ere, Estebanek gatzigatu digunez, guztiz ezberdinak dira lakoten esperientziak eta euskaldunonak. Haatik, bata besteagandik zer ikasirik bagenuke. "Haiek, guregandik, hizkuntza bizirik iraunarazteko esperientzia jaso dezaketela uste dut. Guk haiengandik, oster, hitz egin aurretik entzuteko gaitasuna geuregana genezake. Eta zaharrei dieten begirunea!".

Azalpenak argigarri ez ezik, erakargarri egin nahian, filmetan ikusia eta liburuetan irakurria dugunaz baliatze-ko asmoa zuen Estebanek hitzaldian. Eta esaldi erraz eta erabilgarri batzuk ere irakatsi nahi zituela ere jakinarazi digu: "Eta zein da, esaterako, indigena hauen gainean berbetan hasi eta ahora datorkigun lehenengo hitza? Agurra, jakina! *Háu khóla! Aitor emáciyapi na Bilbao emátanhan*. Horren esanahia, berriz, honakoa: "Kaixo lagun! Nire izena Aitor da eta Bilbokoa naiz". Hori esanik, oharrarazi gaitu, edo aholku eman. "Agur moduko esaldi hori erabili eta geroko: ez inoiz jendea atzamarrez seinalatu, heziera txarrekotzat dute-eta, ez dute batere atsegin! Eurak ezpainez baliatzen dira. Ez ei dira haserretzen, baina 'Hona hemen ohiko zuri ergel ezjakina' beren artean pentsatu, dudarik ez!". Jakinaren gainean gaude, hortaz. ●

BABESLETZA:



HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLI, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako
suzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz
egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren,
talde-lanaren, arintasunaren eta iraunkortasunaren
hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusizina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry

